

**Sokatira** ♦ Beti Gaztek eta Sakanak lortu dituzte aurreneko puntuak 600 eta 520 kiloetan

# Lehen bi saioak jokaturata, aldaketa aipagarriarik ez

*Euskal Herriko Txapelketak lehen txanpa egin du, ohiko garaileekin*

Koldo Alduntzin / Leioa

JOKOAN DA Euskal Herriko Txapelketa goma gainean, aurreneko bi saioak jokaturata. Arrigorriagan eta Leioan ikusitakoaren arabera, gizonezkoen 600 kiloetan hiru maila desberdin daudela antzeman dugu, gutxi asko, iaz bezala. Hori, ordea, ez da berria, edozein kiroletan gertatzen den gauza baita. Sokan eten handirik egin gabe diharduten taldeek lortu dute prestakuntza eta teknikarik onena, eta hala nabari da jardunean.

Hortaz, Beti Gazte, Areso eta Abadiño leudeke onenen artean. Maila bat beherago, Leioa, Goiherri, Torrekolanda, Auzolan Igeldo, Badaiotz eta Txantrea. Hirugarren mailan, Altamira, Orendain, Urrestilla, Barrundia, Arrizkuzubi eta Imotz. Litekeena da talderen batek tiralariren baten hutsunea eduki izana, eta hurrengo saioetan erakutsi beharko dute.

Urrestillak aipamena merezi du. Leioako saioan sei tiralari gazte-gazte kantxaratu zituelako, eta batez beste, 18 urteko taldea aritu zen sokan, Ander Urangak gidaturata. Bestetik, Laioak finkatzea lortu du, eta seriotasunez dihardu. Beti Gaztek tiraldi guztiak irabazi zituen hirugarren multzoko lehen jardunaldian, eta bi minutuz



Goiherri taldekoak, Leioaren kontrako tiraldi gogorrean, igandean, Leioan.

behetik gainera. Tiralari berri batekin jardun zuen; Nafarroako Txapelketan aritua.

Urrestillak eta Leioak, Barrundiak eta Auzolan Igeldok eta Barrundiak eta Urrestillak tiraldi bana irabazi zioten elkarrizketaren txandak. Urrestilla eta Auzolan Igeldoren arteko tiraldiak izan ziren borrokatu eta luzeenetakoak. Sailkapena: 1. Beti Gazte (5 puntu), 2. Laudio (4 p.), 3. Auzolan Igeldo (2 p.), eta ber-

dinduta, Urrestilla eta Barrundia (puntu bat eta erdi).

## Sakanak nagusitasuna berretsi du

Emakumezkoek lehen saioa jokatu zuten, 520 kiloetan lehen jardunaldia hain zuzen ere. Nafarrek ere, bi kontrarioak mendean hartu zituzten, bi minutuz azpitiko lau tiraldiak eginda. Sakanarren arazo nagusia da berriro zor-

tzi tiralarirekin gera daitezkeela, Marta Moratiños uzteko-tan baita. Leioan aritu zen, baina Miren Ziga gripeak jota zegoelako. Bistan da hutsune nabaria izango litzatekeela.

Goiherri eta Leioak borroka polita izango dute txapelketan. Igandean bana berdindu zuten minutu eta erdiko tiraldietan, eta estu-estu lehiatuta. Sailkapena: 1. Sakana (3 p.) eta Leioa eta Goiherri (puntu eta erdi).

## Sokatirako epaile kopurua eskasten ari da urtetik urtera

■ SOKATIRAN diharduten epaileen kopurua eskasten ari da urtetik urtera, eta gure ustez, arazoak bere garrantzia du, laster, egun dihardutenek ere uzteko arriskua baitago. Iaz lur gainean sortu ziren liskarren ondorioz, bizpahiruk uztearabaki zuten. Goma gaineko txapelketan guztira zazpi epaile ariko dira: Ranero, Beiztegi eta Bengoa (Bizkaia). Aizkorbe eta

Bengoetxea (Nafarroa), Miguel Angel Apraiz (Araba) eta Azarola (Gipuzkoa). Azarola, gainera, beranduago hasiko da.

Sailkapen fasean behinik behin epaile bat ariko da soka bakoitzean. Igandean, Ranero, Beiztegi, Aizkorbe eta Bengoa aritu ziren, lana txandakatu, eta haiekin aztertu genuen pittin bat epaileen arazoa. Haiek diote: «Gure artean ez



KOLDO ALDUNTZIN  
Ortiz de Guinea ez da ari.

dago oso giro ona, eta bestetik, tiralariak sarri kezkatzen dira gure lanarekin».

Bistan da edozein kiroletan daudela tiralariek epaileekin, eta horiek gainditzen jakin egin behar dutela, baina hainbatetan gogorri kritikatu dituzte, eta baita iraindu ere. Pentsatzen dugu epaileak ez direla ari sentsuarekin, eta beren lana gustura egiterik ez badute, gero eta gu-

txiango izango direla sokatiran. Anton Fernandez —Euskal Federakundeko lehen-dakaria— Leioan izan zen igandean, eta honela mintzatu zitzaizgun: «Ni ez nau hainbeste kezkatzen epaileen eskasiak, gehiago kezkatzen nau taldeen kopurua jaisteak».

Leioan egon ziren epaileek konponbide bat proposatu zuten: «Gainerako epaileak ere sokatiran jarri».

## Izotz hockeya ♦

### Hormadik seigarren postua ez galtzea du xede epe motzera

*Reimsen 4-2 galduta, Caen eta Chamonix menderatu beharko ditu*

Koldo Alduntzin / Donostia

ETXETIK kanpoko bigarren partida jarraian galduta, hots, Reimsen 4-2, Hormadik seigarren postuari atxikirik jarraitzen du 19 punturekin (20 partida). Kontuan hartuta aitzinetik Caen eta Amiens dituela 24 punturekin (biek 20 partida), epe laburrera seigarren postuari eustea izango dute xede lapurtarrek, Lyon bi puntura baitute (21 partida).

Larunbatean Caen hartuko du Hormadik. Caenek 1-5 galdu zuen Amiensen aurka larunbatean, eta joan den asteartean 4-3 Viryren kontra. Ondorioz, bigarren postutik bosgarrenera jaitsi da. Urtarrilaren 21ean, Chamonixen jokaturako du Hormadik. Alpetarrek doi-doi irabazi zioten Viryri larunbatean (2-1), eta zortzigarren dira (14 p.). Beraz, tentuz prestatu beharreko bi partida ditu Hormadik.

### Bilbao eta Solaux berriro selekzioan

Reimsek seitek lau partida irabazi ditu azkenaldian, eta ez da harrizkoa Hormadi menderatu izana. Orsolinik 2. minuturako sartu zuen lehen gola. Hormadik faltak egin behar izan zituen (18 minutu). Bigarren zatiko 10 minututan angeluarrak galduta ibili ziren. Halere, Dubek lehenik eta Izagirrek Solauxen pasea jaso-ta, gol bana sartu zuten 51 segundoko tartean. Hirugarren zatian 3-2 ziren, eta partidaren ondoren, Hormadik Raymond atezaina gabe jokatu zuen jokalaririk gabe gehiago edukitzeko, baina laugarren gola hartu zuen.

Ducharmek jokatu zuen, baina ez Bilbaok. Hain zuzen ere, Bilbao berriro deitu dute selekzioan aritzeko, eta baita Perez, Solaux eta Oprandi ere. Bestetik, Izagirrek ez zuen arazorik ukan lesioarekin.